


**Egiagarai:** «Gobernuak ez dauka Konstituzioa aldatzeko inolako asmorik» / 5



**Unanue eta Zezeagak** kostata irabazi zieten Bergara II eta Arretxeri / 21



**Egaña, Murua eta Peñagarikanok** osatu dute finalerako lehen hirukotea / 29

**EUSKALDUNON**

# Egunkaria

Larunbata, 1991ko Abenduak 7 / II. urtea / 312. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

**DURANGOKO AZOKA**

## Euskal narratibari buruzko gogoetak

Durangoko Liburu eta Disko Azoka aitzaki, hiru narratzaile bildu ditugu Joxerra Garziak zuzendutako mahainguruan: Ramon Saizarbitoria, Mikel Hz. Abaitua eta Jimu Iturralde. / 24-25

# Hamazazpi hildako autopistan

Hogeitalau kotxek txoke egin eta hemezortzi erabat erreta gelditu ziren Erletxe parean

Hamazazpi lagun hil eta beste berrogeitabederatzi zauritu ziren atzo eguerdian Galdakao eta Zornotza artean autopistan, Erletxe parean gertatutako istripuan. Behelaino itsu-itsua zegoen errepi-dean eta istripuaren arrazoia hori izan zitekeen Ertzaintzak adierazi zuenez.

Aidanez, bi kotxek elkarren kontra jo zuten eta Bilbo-Behobia autopistako Donostia alderako bi karrikak hartu zituzten. Atzetik zetorren kotxe andanak ezin izan zuen garaiz gelditu eta pilotuta gelditu ziren. Guztira hogeitalau kotxe ziren istripuan, eta gasolina ontziak leheritu zirenez, suak hartu zituen. Hemezortzi erabat kiskalita gelditu ziren.

Kotxeetan zihoazenetatik asko, burdin artetik atera ezinik erreta hil ziren. Ezbeharra gertatu zen lekuan bertan hil ziren hamasei lagun eta hamazazpigarrena Galdakako erietxera zeramatela. Zaurituta gelditu ziren berrogeitabederatzi lagunetatik hemezortzi ingesatuta zeuden artean atzo gauean. Batzuk egoera oso larrian. Gorpuak eta kotxeak apartatu eta identifikatzen lan handiak izan ziren. / 8-9



Bi kotxek txoke egin eta bidea itxi zuten. Atzetik zetozenek haien kontra jo zuten eta pilotuta gelditu ziren.

ANDER GILLENEA

## Autobideko harresiak hondatu egin dira Azpirotz gainean

Irurtzun Andoain autobideko Azpirotzeko plataforma eusteko harresiak hondatzen ari dira. Bi kilometrotan sei hilabetez eraikitako harresi 'ekologikoen' oinarria hausten ari da eta irailaz geroztik lanek ez dute aurrera egin puntu horretan. Suitzatik ekarritako sistemak ez du balio izan Azpirotzen. Teknikoek diotenez, sei metroko altura bitartean seguru da harresi 'ekologikoa', baina Azpirotzen 20 metrotik gora ditu harresiak eta oinarriko kuxak hutsik dauzka. Konpontzeko zer egingo duten ez dakitela esan du Jesus Gonzalez Nafarroako errepide zerbitzuko arduradunak. Hala ere, eta negua gainean izan arren, lanek aurrera segituko dutela agindu du. / 6-7

## Milaka lagun bildu zen Bilbon 'Etxean nahi ditugu' eskatzeko

Milaka eta milaka lagun bildu zen atzo Bilbon, 'Etxean nahi ditugu' lemarekin, Senideak elkarrekin antolatutako manifestaldian. Manifestariek isilik egin zuten Jesusen Bihotza eta Bilboko Udaltehea bitarteko bidea, bost t'erdia pasata hasi eta zazpi t'erdia ondo jota amaitutako ekitaldian.

Senideak elkarteko kide batek hitzegin zuen amaiera ekitaldian eta «gertatzen denaz bost axola izatea» egotzi zion Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakariari. «Herritar askok ez zaitugu ordezkari ikusten, zu ez zara gure

lehendakaria, eta baldin bazara, frogaezaiguzu» esan zuen Senideakeko ordezkariak. Ardanzak «bake iraunkorra» ez duela nahi esan eta «presondegiatan bidegabekeria eta estutasuna gordeztearen alde» dagoela gaineratu zuen.

Goardia Zibilak kontrolak jarri zituen Audio, Arrigorriaga eta Zornotzan. Azken horretan bi lagun atxilotu zituztela ikusita, hamabost autobus geratu ziren bertan eta behera jaitsi zen jendea. Goizeko istripua gertatutako tokitik 200 metrora zegoen kontrola. / 4

## Real Madrid etsai beldurgarria izango du gaur Realak

Realak Santiago Bernabeu zelaian jokatu du gaur arratsaldeko 8etan, Real Madridentzako. Agustin Gajate ez da bertan izango, Logroñoko deskalabroan lesionatu eta Donostia itzuli bait da; Alabak hartuko du haren tokia.

Honakoa izan daiteke txuriurdinen hamaikakoa: Gonzalez, Imanol, Uria, Larrañaga, Gorri, Alaba, Oceano, Imaz, Kodro, Carlos Xavier eta Luis Perez. Oceanok eta Luis Perezek arazo fisikoak izan arren, biak izan daitezke zelaian. Sailkapenaren erdikaldean baina negatibo batekin, Realak zer itxura eskainiko duen ezin daiteke igarri. Ligako azkenetako emaitza onek Kopan kontrapuntua izan zutelako. / 19

## BESTERIK

### G I Z A R T E A

Alderdi politikoek instituzioetan euskara oso gutxi erabiltzen dutela salatu du EHEK / 10

### E K O N O M I A

Baxurako euskal flotak 50 untzitik gora kenduko ditu aurten / 12

### E S T A T U A K

250.000 etorkin kanpora ditzakete Espainiatik / 14

### N A Z I O A R T E A

Jugoslaviako Armada Federalak Dubrovnik hiriarri berriro egin dio eraso / 16